

KONTROL MOZIOA

Turismo iraunkorra eta Miramar Jauregian hotela jartzeko asmoa direla-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko abenduaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabete gutxi pasatu dira Turismo sozietateak bere Zuzendaritza Plana onartu zuenetik, egunak hori bera Gizarte Kontseiluari aurkeztu zaionetik. Datozen urteetarako proposamena zehaztu du, neurri sorta handia bilduz aipatuko Planak eta, laburpen moduan, esan dezakegu erronka ez duela turista gehiago erakartzean jarri, baizik eta turista kopurua orekaz banatuta izan dadila urteko hilabeteetan eta eskaintza zein leku desberdinen arabera, kontzentrazio kaltegarriak ekiditean, finean. Hala, Udal Gobernuak bere hasierako diskurtsoa malgutu eta azken hilabeteotan argi azaldu du bere apustua turismo iraunkorraren aldekoa dela, masifikazioaz kezkatuta dauden herritarrei erantzuna emanez eta Turismoko Zuzendaritza Planarekin bat etorriz.

Berriki, aldiz, jakin dugu ekipamendu publiko batean hotel berri bat kokatzeko aukera hautatu duela Udal Gobernuak eraikinari irtenbide ekonomiko sostengarria ematea dela defendatuz. Horren arabera mozio honi bide eman dion interpelazioari erantzunez, hala nola batzorde berean beste talde batzuek eginiko interpelazioei erantzunez, alkateak defendatu zuen: Miramar Jauregiko parke publikoaren sarbidea mugatzea; eraikinak metro karratu ugari dituela libre eta etekin ekonomikoa ateratzeko bertan hotel berri bat jartzea hoberena dela; akaso beste erabilera batzuk planteatzerik badagoela baina hau dela onena. Aukera horren alde egin zuen esanez, oraindik erabakia ez izan arren, eta beste aukera batzuk mahaigainera daitezkeen arren, hori dela hauturik zentzuzkoena eta doituena. Argudiatu zuen gehiago sakondu behar dela, baina inori ez zaiola bururatuko hori baino erabilera iraunkorragorik, ikuspuntu ekonomiko batetik, edo dauden arazoak konpondu ditzakeenik. Eraikinak irabaziak izan behar omen ditu.

Alkate jaunak hori guztia azaldu zuenean, hautua egina ez dagoela behin eta berriz esan arren, arestian azaldutako argudioen bidez Miramar jauregian hotel bat jartzea hautatu duela agerian utzi zuen eta, beraz, interpelazioak zioen moduan, hautu hori egiterakoan, alegia, ekipamendu publiko horretan hotel berri bat kokatzeko hautua egiterakoan, Turismoko Zuzendaritza Planak jarritako helburua, turismo iraunkorraren alde egiteari dagokionez, urratzen ari dela.

Azaldu genuen badela kontuan hartzekoa Donostiako eskaintza 9.100 plaza direla hoteletan, 7.800 plaza pisu turistikoetan, eta 22 hotel ere eraiki bidean daudela. Eta Udal Gobernuak datuok ontzat jo zituen; eta datuok presente, beste hotel bat irekitzeko hautua turismo iraunkorrarekin bat ez datorrela argi geratu zen. Hala esan dute eragile ugari (auzo elkarteak, Turismoko Gipuzkoako foru

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

diputatua...), bai eta talde honek ere. Egun adostu diren helburuak kontuan hartuta, Donostian eta nazioartean ikusten ari diren joerak ikusita, Miramar Jauregian hotela kokatzeko hautua ez da egokia.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Donostiako Udaltzak eskatzen dio Udal Gobernuari, turismo iraunkorra sustatzearen hobe beharrez, eta bere esku erabakitzea dagoen neurrian, Miramar Jauregian ez erabiltzeko ostaturako metro karraturik.

Donostian, 2017ko abenduaren 15ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia